



ingeniaritza  
**ELEKA**  
Linguistikoa

# XUXEN QuarkXPress 7

Eskuliburua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Egileak:



[ixa.si.ehu.es](http://ixa.si.ehu.es)



ingeniaritza  
**ELEKA**  
Linguistikoa

[www.eleka.net](http://www.eleka.net)

## Aurkibidea

1 Hitzaurrea.....	3
2 Eskakizunak.....	4
2.1 Sistema eragilea.....	4
2.2 Beharrezko softwarea.....	4
3 Instalazioa.....	5
4 Erabilera.....	10

# 1 Hitzaurrea

Dokumentu hau XUXEN QuarkXPress 7 euskarazko ortografia zuzentzailearen eskuliburua da.

## **2 Eskakizunak**

### **2.1 Sistema eragilea**


Mac OS X 10.4 edo 10.5.

### **2.2 Beharrezko softwarea**


QuarkXPress 7.x

### 3 Instalazioa

XUXEN QuarkXPress instalatzeko klik bikoitza egin instalatzailean. Instalazioa automatikoa da. Instalazio prozesuak hurrengo irudietan agertzen diren pantailatan zehar eramango gaitu.




1 Irudia : Instalatzailearen lehen pantaila




2 Irudia: Aukeratu instalazioa burutu nahi den bolumena (disko gogorra) eta "Continuar" sakatu



3 Irudia: "Instalar" aukeratu instalazioarekin hasteko




4 Irudia: Administratzaile baimena duen erabiltzaile baten izena eta pasahitza sartu



5 Irudia: Instalazio burutzen ari da. Itxaron bukatu arte






6 Irudia: Instalazioa amaitu da

## 4 Erabilera


QuarkXPress 7 programak ez dakar euskara erabili daitezken hizkuntzen artean eta horregatik, XUXEN zuzentzailea suediar hizkuntzari lotu zaio. Hori dela eta, euskarazko testu bat zuzentzeko “suedieraz” dagoela adierazi behar zaio.

Horretarako, “karaktereen estilo orria” (“*Hoja de estilo de caracteres*”) editatu behar dugu eta han “*Sueco*” hizkuntza ezarri. Lehendabizi, “*Edición->Hojas de Estilo*” menura joango gara.




7 Irudia: Ditugun estilo orriak editatuko ditugu

Dauden estilo orriak aterako zaizkigu. Guk, erabiltzen dugun karaktereen estilo orria editatuko dugu.




8 Irudia: Karaktereen estilo orria aukeratu eta "Editar" botoia sakatuko dugu

Ateratzen diren aukeren artean, “**Idioma**” atala egongo da. Hor, dagoen hizkuntza aldatu eta “**Sueco**” ipiniko dugu.




9 Irudia: "Idioma" atalean, "Español"-en ordean, "Sueco" aukeratuko dugu.




10 Irudia : Zerrendatik, "Sueco" aukeratuko dugu

Hau egin eta gero, prest gaude testuak zuzentzeko. Horretarako "**Utilidades->Verificar Ortografía**" menura joango gara eta hango aukeretako bat hartu, adibidez, "**Selección**" aukeratuko daukagun testu zatia zuzentzeko.




11 Irudia : Testua zuzentzeko, "Utilidades->Verificar ortografía" menua erabili behar da

Testua zuzendu eta gero, zuzenketaren emaitza-leiho bat azalduko zaigu, zuzendu diren hitz-kopuruarekin, hitz ezberdinen kopuruarekin eta gaizki dauden hitzen kopuruarekin. “**OK**” sakatu behar da okertzat ematen diren hitzen zerrenda eta beren zuzenketa-proposamenak lortzeko.



11 Irudia : Zuzenketaren emaitza.  
"OK" sakatu jarraitzeko



12 Irudia : "Kaizo" hitza okertzat jo du eta zuzenketa proposamenak ematen ditu